




TXINTXARRITXO ARDIA

Doinua: Goizian goiz jeikirik I-A

Neurria: Kopla txikia. Bi puntuko txikia (ip) / Lauko txikia (hg)



Julio Soto Ezkurdia
(1987 Iruñea, Nafarroa)

- 1 Arditxo txuri bat naiz polita, **gizena** Txintxarritxo ipini zidaten **izena**.
- 2 Astoa arrantzaka txakurra **atean** zoriontsu bizi naiz baserri **batean**.
- 3 Nahiz eta artilea eraman **soinean** gauetz lo egiten dut iratze **gainean**.
- 4 Artzainak eskuz jetzi ohi nau **egunero** gazta eta mamia egiteko **gero**.
- 5 Joan den azaroan Bixi etorri **zen** arkume txiki baten ama egin **nintzen**.
- 6 Titian ez badaukat erdi **belauniko** eguna ematen du salto eta **brinko**.
- 7 Udaberri garaia **iristearekin** mendira joaten naiz beste **ardiekin**.
- 8 Orain eguzki goxo orain **behe-laino** hantxe egoten gara **udazkeneraino**.
- 9 Baserrira itzultzen gara **negurako** han babesteko hotza **datorrenerako**.
- 10 Nire bizitzarekin oso pozik **nago** hurrena kontatuko dizuet **gehiago**.

